

UDALAREN ERAKETAREN BATZARRALDIKO AKTA

BILDUTAKO ZINEGOTZI HAUTATUAK

BILDU Koaliziokoak

KOLDO AGIRRE MUJICA
M^a MAR CELAYA GONZALEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
ASIER SARRIEGUI
ZUMARRAGA
CECILIA HERRADOR GARIN
IÑAKI SALDAÑA HERRERO

EAJ-PNV alderdi politikokoak:

AITOR ALDASORO ITURBE
M^a LUISA VALLES FERNANDEZ
LEIRE ARTOLA UGALDE
IÑIGO ARRESE ARTABE
ENCARNA ARRIETA TELLERIA
EVA DIAZ DEL RIO

PSE-EE (PSOE) alderdi politikokoak:

FERNANDO BOADA GONZALEZ
ANA M^a CRESPO BLANCO

H1 alderdi politikokoa:

JOSI INSAUSTI MUJICA

PP alderdi politikokoa:

JULIO HERREROS SERNA

Aralar alderdi politikokoa:

UNAI BAZTARRIKA OTEGI

Beasaingo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamaikako ekainaren 11n goizeko hamaiketan, kargua uztera doan Alkate-Lehendakari jaunak deituta, lehenengo deialdian bildu dira joan zen maiatzaren hogeita biam egindako Udal-hauteskundeetan zinegotzi hautatu eta aldarrikatuak izan zirenak.

Halaber ekitaldian izan da eta ekitaldiko fede eman du Itziar Arostegi Apaolaza Udaleko Idazkari andreak.

Idazkariak, batzaraldi honen helburua Udalaren eraketa dela adierazi du, horrela, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorretako Lege Organikoaren 195.1 artikulua eta Korporazio Lokalen Antolamendu eta Funtzionamenduko Erregelamenduko 37.1 artikulua agindutakoa betez. Batzaraldia ondorengo gai-zerrendaren arabera egin da:

- Udalbatzaren eraketa.
- Alkatearen hautaketa eta kasua bada, karguaz jabetzea.

Idazkari andreak hitza hartu du eta ondorengo adierazi du:

“Egunon guztioi:

Legealdia bukatu da eta orain lau urte egin genuen bezala, legealdi berri bati bide eman behar diogu.

Egun hauetan irakurri dut hauteskunde-prozesuak drama klasikoaren antza handia duela, hiru ekintza edo fasetan garatzen delako:

1.- Hauteskunde deialdia, planteamendua izango litzateke.

2.- Korapiloa berriz, bozketaren ekintza bera, hauteskundeetara aurkeztu diren alderdi, koalizio edo agrupazioen arteko leia dagoelako.

3.- Ondorioa edo emaitza: Korporazioa osatzea.

Korporazioa osatzea eta Alkatea hautatzea eta izendatzea dira, hain zuzen ere, bilera honetako helburuak.

Korporazioa osatu baino lehen, tramite administratibo batzuk burutu behar dira, hala nola, arkeoa edota Udalak udal gordailuan edota banketxeetan dituen, baloreetan nahiz eskudirutan, izakinak egiaztatzea eta inbentarioa eguneratzea, azken rektifikaziotik gaur egun arte ondasunetan izandako aldaketak inbentarioak islatuz. Hori guztia egin da eta baita zinegotziek ere aurkeztu dituzte bateraezintasun eta ondasunen aitortpenak.

Beraz, lan horiek eginda, Korporazioa osatzeko moduan gaude.

Korporazioa osatzeko lehendabizi egin beharreko gauza adineko mahaia eratzea da. Adineko mahaia, idazkariak gain, hautatutako zinegotzien artean adinez nagusienak eta adinez gazteenak osatzen dute”

Idazkari andreak, Enkarni Arrieta eta Koldo Agirrerri hurbiltzeko eskatu die eta adineko-mahaia osatu da.

Idazkaria andreak: “Adineko mahaiaren egin beharra, zinegotziek aurkeztutako kredentzialak eta hauteskunde-batzordeak emandako aldarrikapen akta bat datozela egiaztatzea da. Kasu honetan, horrela da eta idazkari naizen honek horren fede ematen dut.

Beasainen udal korporazioa, 17 zinegotzik osatzen dute. Korporazioa osatzeko, gutxienez gehiengo absolutua behar da, gure kasuan gutxienez bederatzi zinegotzi bilerara etortzea.”

UDALBATZAREN ERAKETA

Idazkariak hautatutako zinegotzietan dei egin die eta egiaztatu da, hamazazpi zinegotzi daudela, baina Korporazioa formalki eratuta dagoela esateko, beste pauso bat eman behar da, hain zuzen ere, zinegotzietan karguaren jabetza hartzea. Horretarako, mahaiko-lehendakariak, lege ezarritako zin-egite formula, hau da, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak ezarritako zinegite-formula irakurri dio zinegotzi bakoitzari, zinegotzi hautatuak beren karguez osotasunean jabetzeko. Zinegite-formula honelakoa da:

“Zin egiten al duzu, zinegotzi karguaren obligazioak finko beteko dituzula, Erregeari leial izanez eta Konstituzioa, Estatuko oinarrizko arau lege, betez eta betearaziz?”

BILDU koalizioaren zinegotzietan, legeak horrela aginduta men egin diote ezarritako formulari.

EAJ alderdi politikoaren zinegotzietan, legeko inposaketatik men egin diote ezarritako formulari.

PSE-EE (PSOE) alderdi politikoaren zinegotzietan ondorengo erantzun dute: “Si prometo”

H1 alderdi politikoaren zinegotziak, legeko inposaketatik men egin diote ezarritako formulari.

PP alderdi politikoaren zinegotziak honela erantzun du: “Si juro”.

ARALAR alderdi politikoaren zinegotziak, legeak horrela aginduta men egin dio ezarritako formulari.

Idazkari andreak: Zinegotzietan karguaren jabetza hartu dutenez, Udal Korporazioa eratuta geratu da.

ALKATEAREN HAUTAKETA

Hurrengo pausoa Alkatea hautatzea eta izendatzearena da. Hautagaiak zerrenda-buru direnak izan daitezke, hau da, KOLDO AGIRRE (BILDU), AITOR ALDASORO (EAJ), FERNANDO BOADA (PSE-EE/PSOE), JOSI INSAUSTI (H1), JULIO HERREROS (PP) eta UNAI BAZTARRIKA (ARALAR). Hautesleak berriz, zinegotziak.

Gertatu daiteke, norbaitek bere burua aurkeztu nahi ez izatea, hau da errenuntzia aurkeztea.”

Idazkariak galdetu du ea norbait erretiratzen den izangaia izateko.

Inor erretiratu ez denez, adierazitako guztiak izango dira hautagai.

Alkatea hautatzeko isilpeko txartel bidez bozketa egingo da eta horretarako zinegotzi bakoitzari txartel bana eman zaie, hautagaiaren alboan X bat jartzeko. Gehiengo absolutua lortzen duenak, hau da, bederatzi boto lortzen dituen hautagaiak, Alkatea aldarrikatuko da. Ez balego hautagairik gehiengo absolutua lortzen duenik, Alkatea, herrian boto gehiena lortu duen zerrenda-burua izango da.

Bozketa egin da, txartelak kutxatila batean sartuz. Botoen zenbaketa egin da. Guztira hamazazpi boto eman dira eta Koldo Agirre Mujika jaunak ozenki irakurri ditu, bakoitzean Alkatetarako proposatuta dagoen zinegotziaren izen-deiturak esanez. Horren ondorioz, bozketaren emaitza ondorengoa da:

| | |
|---------------------------------------|-----------------|
| KOLDO AGIRRE MUJIKA (BILDU) | 7 boto. |
| AITOR ALDASORO ITURBE (EAJ) | 6 boto. |
| FERNANDO BOADA GONZÁLEZ (PSE-EE/PSOE) | 2 boto. |
| JULIO HERREROS SERNA (PP) | 1 boto. |
| | Boto bat zuria. |

Josi Insausti Mujika jaunak ez du botorik lortu.

Bozketaren emaitza ikusita, ez dago hautagairik gehiengo absolutua lortu duenik, beraz, Alkatea, herrian boto gehiena lortu duen zerrenda-burua izango da. Beraz, BILDU koalizioaren hautagai den **KOLDO MUJIKA AGIRRE** jauna aldarrikatu da Udal honetako Alkate.

Jarraian, hautatua izan den **KOLDO MUJIKA AGIRRE** jaunak, Udal honetako Alkate-kargua onartzen duela adierazi du, alde zuzenetik hauteskunde-legean ezarrita dagoen legezko formulari legeak inposatuta men eginez. Beraz, Alkate-karguaren jabetza hartu du, egungo xedapenek ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiekin.

Bukatzeko orain arte Alkate izan den, Patxi Plazaola Muguruza jaunak, Koldo Agirre Mujika Alkate berriari alkate-makila entregatu dio. Patxi Plazaola Muguruza jaunak: Koldo eta zinegotzi guztioi zorionak eta eskerrak Beasainen alde lan egiteko presta zaudetelako. Zorte on izan dezazuela.”

Koldo Agirre Mujika jauna:

“Eguerdion beasaindar guztioi!

Alkate izendatu berritan nire lehen hitzak esker ona adieraztekoak izan behar dute, halabeharrez.

Esker ona Beasainen ere aldaketa posiblea dela sinetsi duzuenoi, urteetako bazterketa politikoa gainditzeko egoerarik zailenetan hor mantendu zaretenoi, azken batetan gure bizilekuaren baldintza demokratikoak sakontzeko lan egin duzuenoi.

Eskerrak ere beasaindar guztiei, bakoitzak bere hautu politikotik hemen ikusten ari garen argazki honetako partaide ere bazaretelako eta une honetatik aurrera zuentzako eta zuekin, guztiokin batera lan egiteko prest izango nauzuelako.

Garai berriak usaintzen dira Euskal Herrirako, usaindu bakarrik ez, gehiago esango nuke, dagoeneko ikusi ere egiten dugu urteetako gatazkak irekitako zauriak ixtera goazela, gure arteko elkarbizitza sendatzera, alegia. Honetan ere guztion partaidetza ezinbestekoa izango da, bakoitza bere mailan arazoaren parte izan garelako, eta irtenbidean ere norberak berea eman beharko dugulako.

Eta Beasaindik ere Euskal Herriaren normalkuntza politikoan zeregina izango dugula pentsatzen dugunez, gaur hartzen dudan kargu hau eta Udal osoari tokatuko zaion partean, eginkizun horretan jartzen saiatuko naiz. Bakea eta Normalizazio politikoa izango ditugu helburu, giza eskubide guztien errespetuan indarkeriarik gabeko aroa aldarrikatzen dugu, errepresio, preso eta torturarik gabekoa, bizkar-zainik eta inolako mehatxurik gabekoa, bazterketa, ilegalizazio eta epaiketa bidegaberik gabekoa.

Konpromiso hori hartzen dut zuen aurrean, baina halaber ezin ditut ahaztu krisialdi ekonomikoa euren haragietan nozitzen dituztenak, langabetu eta baztertuak, inolako ardurarik izan gabe baldintza gordinetan bizi direnak. Udal honek eskura izango dituen ahalmenaz baliatuz, errekurtsoen berbanaketa eta justizia sozialaren printzipioetan murgiltzera gatoz.

Garai zailak dira Udal hauetatik tamaina horietako erronkei aurre egiteko, bitartekoz urri izango gara, baina gogoz gainezka, kalean somatzen den ilusio olde horren hartzaile eta kudeatzaile izango gara, Udala herritarrei gerturatzeko, beasaindarren parte hartzeari bidea errazteko. Nahiago nuke Udalbatza honek egingo dituen bilkura guztietan aretoa gaur bezala ikusiko bagenuke, baina herritarrak bertara etorriko ez bazarete ere, gu zuengana gerturatzeko prestatuko gara.

Ez da gure eginbeharrak banan bana aipatzen hasteko unea, besteak beste bertan gauden sentsibilitate politiko guztien artean gauzak nola egingo ditugun hitz egin beharrean gaudelako, hauteskondeek erakutsitako aniztasunak egingo dugun kudeaketan isla izango duela aitortzen dizuet eta bide batez guztion jarreran konpromiso hori har dezazuela eskatzen, aurreiritzirik gabe eta herritarrak beti gogoan izanda.

Agur hau ezingo nuke amaitu Euskarari aipamen zehatz bat egin gabe, egun hauetan esan da gure Hizkuntzaren normalkuntzan Gipuzkoak ardura bereziak hartu beharko dituela, eta hori entzundakoan Goieritik eta Beasaindik zeregin handiak ditugu, herritar gisa zein erakunde mailan. Bide horretan erabilpena da giltzarri, eta administraziotik eredu izatea tokatzen bazaigu ere, guztion kontzientziaz abiatuta jokatzeari eskertuko nizueke. Horra hor gaurkoz aipatu nahi nizuen azken konpromisoa.

Besterik gabe eskerrak niretzat gogoangarria izango den egun honetan bertaratu zareten guztioi, zuen beroaren beharrean izango naizenez elkar ikusiko gara.

Eta orain, jai hondarrak bete betean aprobetxatzeko eskatuz agurtuko naiz,

¡GORA BEASAIN!

Eta besterik gabe, bilera eguerdiko hamabiak hogeitun gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.